


# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko azaroaren 27a III. urtea

Usurbil, 55. Zenbakia



**Sagar jotzeak  
amaitu ondoren,  
sagardoaren zain**

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak azaroaren 18ko partez. Egun horretan 4 urte bete zituen gure **Ibai Arrizabalaga** txikiak. Zorionak aita eta amaren partez.



Zorionak **Ander!** Azaroaren 18an 7 urte bete zenituen. Zorionak eta muxu haundi bat Iñigoren partez. Etxekoak



Zorionak **Markel.** Azaroaren 13an ederki ospatuko zenuten ezta? Zenbat erori zaizkizu aurten? Bueno...bueno! Zahartzaroan sartzera zoaz, baina beti bezain bizi jarraitzen duzu. Jarraitu horrela. Muxu haundi bat etxekoan partez



Zorionak **Aizpuruatar Eusebiori** azaroaren 14ko partez. Beste hainbat urtetan orain bezain bizkor jarraitu. Etxekoak.



Zorionak **Patxi**, urteak kontatzeari utzi badiozu ere, gogoratzen gara abenduaren 3an zure urtebetetze eguna dela. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



Zorionak **Unai!** Azaroaren 27an beteko dituk 23 urte. Badakik nola ospatzen diren etxean, beraz ea zer ekartzen deken.



Azaroaren 22an zure urtebetetze eguna izan zen. Ondo pasako zenuelakoan zorionak potxola. Zure lehen-gusinak.



Orioko politenak azaroaren 29an beteko ditu urteak. Aurten ere elkarrekin ospatuko dugu. **Itziar Manterola**, zorionak etxekoan partez.



Zenbat urte beteko dituzu **Ugaitz?** Bat, bi, hiru, lau, bost? Abenduaren 5ean dagoeneko bost urte. Zorionak bihurritxo! Etxekoak eta Kalezarkoak



Zorionak **Zuhaitz eta Rosa.** Azaroaren 27an badakizue zer egun den. Zorionak eta muxu haundi bat. Etxekoan eta lagunaren partez.



**Eneritz Godinez Alkorta.** Zorionak Ene! Azaroaren 20an 16 urte bete zenituen, etxeko txikia haunditzen doa e!! Beti bezain alai eta txinxante jarrai dezazula. Milaka muxu etxekoan partez.



Zorionak **Begoña!** Abenduaren 17an 17 urte beteko dituzu. Segi orain arte bezala. Etxekoak.

**Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondu berriak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena besterik ez duzu behar.**

**Hurrengo alea: abenduaren 11a**

**Agurrak ekartzeko epea: abenduaren 4a**

## Hildakoak

1998-11-9  
**Felisa Nogales Igual**  
40 urte  
Atxegalde

## Jaiotzak

**Andoni Juanes Canseco**  
(1998-11-17)  
Kaleberri

**Maidar Sanchez Learte**  
(1998-11-17)  
Kaleberri

**Bai, esan?**

• Udala	37 19 51	• Taxi geltokia	36 21 78
• Udaltzaingoa	36 11 12	• D.Y.A.	46 46 22
• Anbulategia	36 20 13	• Gurutze Gorria	27 22 22
• Udarregi ikastola	36 12 16	• Gure Pakea egoitza	37 32 28
• Agerialde ikastetxea	36 38 95	• Gure Elkartea egoitza	37 17 51
• Oiardo kiroldegia	37 24 98	• Arrate egoitza	36 63 40
• Zumarte musika eskola	37 15 94	• Eusko Tren informazioa	47 09 76
• Etumeta euskaltegia	37 20 01	• <b>Noaua!</b> aldizkaria	36 03 21

# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com.topagunea/noaua/>

**Zuzendaria**

Olatz Altuna

**Kazetariak**

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,  
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,  
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,  
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,  
Agurtzane Solabarrieta, Joseba  
Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi,  
Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea,  
Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria,  
Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua,  
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko  
Manterola eta Joxe Torregaray.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

**Erredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,  
Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Murtxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Murtxe Jimenez, Xabier Kamino,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Sukaldaria**

Joxe Mari Sarasola

**Tirada:** 2.300 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko  
jendaurreko ordutegia**

**16.30-18.30  
astegunetan**



## Haurra, kirola, jolasa...

**Haritz Zubiaur**

**Soin-hezkuntzako irakaslea**

**K**irola, gaur egungo gizartean dagoen fenomeno sozio-kultural, ekonomiko eta politikorik garrantzitsuenetarikoa da. Gizartearen bilakaerarekin batera, denbora libre eta aisialdia gizabanakoaren ezinbesteko elementuak bihurtu dira, eta hemen kirolak duen protagonismoa berebizikoa da.

Indarrean dagoen legedian ikusi dezakegu hori; kirola arautzen duten legeek, kirol praktika gizabanakoaren eskubide bezala zehazten du. Unibertsitate aurreko ikasketa maila guztietan soin hezkuntzaren irakaskuntza eta praktika derrigorrezkoa bihurtzen da.

Guzti hau jakinik, haurra bere ingurunean aztertzen badugu, gaur egun, eskolan argi eta garbi, kirolaren eta kirol modernoen (futbola, saskibaloia, eskubaloia, boleibola...) irakaskuntzan oinarritzen den soin hezkuntza jasotzen du. Kirol modernoek, gizarte modernoak bezala, oposiziozko harremanak bultzatzen dituzte, konpetibitatea, ira-

bazlearen aldarrikapena, ekintzen automatizazioa...

Bestalde, eskola orduetatik kanpo **Eskola Kirola** deitzen den irakaskuntza osagarria ematen da. Izenak dioen bezala kirolaren irakaskuntzan oinarritzen da eta motrizitatearekin zerikusia duten beste hainbat iharduera ez ditu barneratzen.

Gizarteko sistema honen ondorioz eskola garaian aurkitzen diren hurrek ordu asko pasatzen dituzte gidaturiko kirol ihardueretan.

Gaur egun hurrek oso denbora gutxi ematen dute eurek asmatutako jolasetan. Nire hezitzaile ikuspuntutik, haurrak bere kabuz, borondatez eta lagunekin harremanak eginez jolastu beharko luke, jolasak dibertsioa, errespetua, ihardueraren aniztasuna, naturaltasuna eta sormena bultzatzen baititu.

Gure gizartean dagoen joera honi aurre eginez eta gizarte gizatiarrago baten bidetik, haurrak kirolean jokatutako beharreak jokoetan jolastura bultzatu behar ditugu.



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!



### Beste bi usurbildar epaituak

Jakingo duzue, urriaren 13an usurbildar bat epaitu zuten beste bost gazterekin batera euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzea-gatik. Donostiako epaitegi aurrean egin zen konzentrazioarako deialdia zabaldu zen herrian, baina nola liteke Usurbil bezalako herri "euskaldun" batetik bost herritar bakarrik azaltzea?

Datorren abenduaren 16an beste bi usurbildar epaituko dituzte denoi dagokigun justizia euskalduna aldarrikatzeagatik.

Biztanleak   epaituak   mobilizatuak

5000	1	5
5000	2	?

Ea oraingo honetan eskemak hausten ditugun eta antolatzen diren mobilizazioetara agertzen garen Pasibitatearekin hautsi dezagun!

**Usurbilgo Euskal Herrian Euskaraz**

### Jostailuak eta jolasak Ekuadorreko haurrentzat

Jakin badakizue zein egoeratan dauden Lojako alberge honetan dauden umeak: abandonatuak, emagalduta eta mozkorren umeak, errekurtsio ekonomiko oso bajuko familietako umeak eta ikusi gabe sinistu ezin diren hainbat eta hainbat kasuetako umeak. Hau hone-lan izanik eta fetxa oso bereziak datozela kontutan hartuta, zerbait egitea pentsatu dut, baina hau zuen laguntzarik gabe ezin dut lortu.

Aurten eguberriak hemen pasa behar ditut eta guk egunero disfrutatzen dugunez, ume hauek, egun batez behintzat, jostailu edo horrelakoak jasoaz disfruta dezaketela okurritu zait.

Abenduaren 25ean hor erabil-tzen ez dituzuen jostailuak edo jolas batzuk hemen banan-banan banatu nahi nituzke. Denetatik onartzeko gauza naiz, puzzleak, ume jokoak, baloiak eta jolasak ez badira ere eskolako tresnak:

koadernoak, lapitzak, boligrafoak etab.

Ea ba zuen laguntzarekin, Lojako albergeko 85 ume hauen bihotzak xamurtzen dituzuen.

**Mikel Elexpe**

**OHARRA:** Ekuadorretik Mikel Elexpek Joxe Antonio Altuna alka-teari bidalitako eskutitzaren zati batzuk dira honakook. Noaua! Kultur Elkarte prest dago laguntzeko. Horregatik, herritar guztiei hemendik deialdi bat egiten zai-zue: jostailu zaharrak, haur jolasak, puzzleak, boligrafoak, lapitzak... edozer gauza gustora hartuko dute Lojako haurrek. **Guzti hau Noaua! Kultur Elkartearen egoitzan** (Korreos zaharrean) **utzi dezakezue astegunetan arratsaldeko 16.00etatik 18.00etara abenduaren 13a bitartean.**

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezinez sinatu daitezkeen arrez Noaua!k beti jakin behar du nori idatzi duen. Gutunak Noaua!k bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

**xirikitutik**



Udazkenean gaudela! Bistakoa da bai, Joxe Martin Sagardia plaza-begiratu berterik ez dago. Herriko langileek ere laguntzatxo bat eman nahi izan diote ama naturari. Begira nola utzi duten udaletxe aurrea.

*Haur jantziak*



**Pauma**

Kale Nagusia, 2   Tel. 943 36 59 43

**ZINZANGA**



**TABERNA**

**"GYRE PRESOK**

**HERRIAN BEHAR DITUGU"**

Iraza kalea, 12  
TIF: 943 36 02 17

**ALBORTA**

**HARATEGIA**

Behoko kalea, 4  
Atxegalde   ☎ 943 36 57 42

# Berriketan



## Maria Dolores Beldarrain Artola

**Lizartzako Andrasoro baserrian jaioa. 23 urterekin etorri zen Santuenera, ezkondu eta gero. Azken 25 urtetan Arrutiren ardoak banatzen ibilia da**



### Zer gogoratzen duzu txikitako edota gaztaroko garaiaz?

14 urte bete bitartean Lizartzan bertan ikasi nuen, baina 15 urterekin Tolosan neskame hasi nintzen lanean. Egia esan, bederatzu urterekin hasi nintzen esne banatzen, eskolara joan aurretik. Etxeko zaharrena naizenez, eta amona oso gaixo jarri zenez, niri egokitu zitzaidan lan hori egitea; esnea behera jeitsi eta eskolara. Lima fabrikari ere jardun nintzen urte batzuetan. Zorte handia izan nuen, garai hartan nire postua oso estimatua baitzegoen. Nik oso postu ona nuen.

### Nola joaten zinen Tolosara?

Orduan autobusik ez zegoenez, bizikletan joan behar izaten nuen Tolosaraino. 7 kilometro inguru zituen egunero egin beharreko bide hark. Baina, buelta okerragoa izaten zen, izan ere, gure baserri iri igotzeko malda haundiko aldapa baitago, kilometro eskas.

### Festetara irteten zineten ezta? Nora?

Inguruko herrietara irteten ginen: Gaztelu, Orea, Tolosako festetara hain zuzen ere. Bertan gaztetxe moduko bat jartzen zuten. Garai hartan "Granbola" esanda ezagutzen ziren gazteleku haiek.

### 23 urterekin etorri zinen, beraz, Santuenera. Asko aldatu al da Satuenea urte hauetan?

Asko aldatu da auzoa, batez ere hizkuntzaren aldetik. Hemen garai hartan dena erderaz egiten zen, hala ere guk seme-alabekin euskaraz egiten genuen. Baina kalera irten bezain pronto erderaz egiten zuten lagunartean. Garai hartan oso euskaldun gutxi zeuden auzoan, esate baterako, gure etxebizitzan gu bakarrik ginen euskaldunak. Egun,

euskaraz askotan entzuten da kalean. Gurasoak kanpotarrak izan arren, beren seme-alabekin euskaraz egiten dute.

### Noiz ireki zenuten Bodega?

Orain dela 25 urte. Hasiera batean Merke tabernako lokalean genuen gure lekutxoak. Taberna Mari Karmen eta Enrike Uliren esku zegoen, eta bodega aldiz, Antonio nire senarra eta nire esku. Hamar urte beranduago gaurko lokala erosi eta bertan geratu gara 15 urte luze hauetan.

### Gogoratzen al dituzu ardo saltzaile hasi zineneko lehen egun haiek?

Bai, noski. Mendian egiten genuen banaketa furgonetaz. Lehenengo buelta Aintzira, Santsonenera... baserrietara eramaten genuen. Gaur egun komertzio txikitari eta etxeetan saltzen dugu ardoa, baita garagardoa ere. San Esteban, Aginaga, Usurbil, Lasarte buelta honetan aritzen gara.

### Gogorra al da?

Orain ez, baina lehen bai. Izan ere, Antonio nire senarra lanean aritzen zen, eta nire kargu gertatzen zen banaketa, kontuak... Honez gain, etxeko lanak, bazkariak... Orain ondo pasatzen dugu bertan biltzen diren jubilatuekin. Karta joko askotan ibiltzen gara, batez ere eskoban.

### Lehen San Estebango festak Santuenean ospatzen omen ziren, zuk ezagutu al duzu hori?

Bai. Soziedade aurrean egiten ziren. Kaxiano etortzen zen beti eta han ibiltzen ginen dantzan. Gero Zabalekoek esan zuten tradizioa mantendu behar zela eta San Estebanen egiten hasi ginen.

Agurtzane Solaberrieta

# Andatza

## karrozeria

Gumer Sánchez



### ZUMETA JATETXEA

### ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarrak
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoak txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

3.475 pta. (pertsonako)

# XABIER EDARITEGIA

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

## TXOKOALDE

Joxe Loidi



### Ez ehizarik, ez angularik...

**O**raindik ere tiro hotsak entzuten dira inguru hauetan. Hotzak ez ditu ehiztariak uxatu. Abenduan sartzerako goazenean ehiza kontuak pil-pilean baditugu ere, ezin konpara daiteke gaur egungo ehiza eta lehengoa. Orain, uso bat edo beste etxera ekartzearekin gustora; lehen, berriz, ehiza ugaria izaten zen. Horregatik, Andatza eta Txokoalde aldean aurten ere ehiza urria izan da.

Ehiza alde batera utzi anguletara pasa behar dut orain. Gabonak inguratzen ari dira, eta merkatuan lehenengo

angularak azaltzen hasiak dira. Aurreko batean egunkarian irakurri nuen 40.000 pezetan saldu ziren urteko lehendabiziko angularak. Aurten ere angula eskasia izango ote dugu ba? Ez da posible dena

bajatzen joatea: ehiza, angularak, arrantza... Noizbait buelta eman beharko zaio momentuko egoera honi.

Txokoaldeko erreka bazterretan ez da angula harrapatzaierik faltako, bakoitza bere



txoko gustokoenean hor egongo da kilo batzuk harrapatzeko irrikitan. Azken astean egin duen hotzarekin ondo jantzita joan beharko. Izan ere, bazterrak zuri-zuri ikusi ditugu azken egun hauetan.

## KALEBERRI

Begoña Arriaga



### Ke ugari antxeta jatetxean

**H**otza izan dugu egun hauetan. Izotzak zuri-zuri utzi ditu bazterrak. Hala ere, bi aste hauetako albiste nagusia beste kolore batekoa da: beltza. Antxeta jatetxean izandako suteak belztu du astea.

Azaroaren 19an, arratsalde partean, ke ugari ikusten zen kiroldegitik. Hemen goitik zer pasatzen ari zen ikustea ezinezkoa zen, eta gainera ez genekien suterik zegoenik ere. Izan ere, negura gerturatzen ari

garenean tximini ugaritatik irtetzen da kea.

Oraingoan, ordea, ez zen tximinia bakarrik. Antxetako leihoetatik ke ugari atera omen zen. Sukaldeko

paderatik etorri omen zen dena. Honek sua hartu eta horren ondorioz etorri zen gainontzeko gutzia.

Suarekin ez, baina beroarekin jarraitu behar dut orain. Dakizuenez, eguzki indarra hartzeko panelak jarri zituzten uztailean kiroldegiaren alde batean. Sinistea zaila bada ere, panel hauen bidez sortzen den indarra oso baliagarria da kiroldegirako. Panel hauetaz eta eguzki indarraz zerbait gehiago jakin nahi duenak datorren ostegunean, hilak 26ean, izango du Udaregi zaharrean hitzaldi bat entzuteko aukera.



# ATXEGALDE

## Goazen Xabierrenera

Amagoia Mugika



**A**zkenaldian Xabier, Atxegaldeko dendari berria, haserre samar dugu, dendara goazenean, "Maripazenera" goazela baitiogu oraindik. Jakin badakigu ja ez dela "Mari Paz janaridenda", baina badakizu ,Xabi, ohitura. Gure ohitura txarrak aldatzekotan, Xabierrek dendako errotulua aldatu du eta izen berria jarri dio dendari "Xabier janaridenda eta urdaitegia". Beraz, joatekotan, goazen "Xabierrenera".

Beste gai bati heldu behar diot orain. Bai, badakit obren kontuarekin nahikoa aspertuta

zaudetela, baina ditxosozko obrak bukatzekotan dira eta txoko txiki bat utzi behar auzoko kontuetan. Badirudi behin-goz amaitu behar dituztela auzoa berritzeko lanak, izan ere, kale guztiak asfaltatu dituzte ja, aparkalekuak egoki markatu eta trafiko seinaleak ere ipini dituzte. Egia esan, itxura ona du Atxegaldek jantzi berriare-



kin. Orain plaza berritzen ari dira, baina hori beste baterako utzi beharko dut, ea norbait haserretzen zaidan obrak gora eta obrak behera...

# KALEZAR

## Gehiago jakingo bagenu...

Pedro Mari Matxain




**T**rumoiak jotzen duenean gogoratzen gara Santa Barbararekin. Kalezarren, beste auzoetan bezala, badaude suteetako ur-hartuneak. Hauek erabiltzeko ordea, behar-beharrezkoa da mangera edukitzea. Guzti hauek herritarren zerbitzurako jarriak dira.

Kalezarko bizilagunek seguru ez dakitela suteetarako mangera badagoela Kalezarren. Peña Pagola elkartean, soziedadearen kanpoan dagoen armarioan dago. Baina nola erabili mangera ur-hartunea ezin badugu ireki? Lasai, ur-hartuneak irekitzeko giltza ere mangerarekin batera dago.

Suteren bat dagoenean su hiltzaileei deitzea izaten da lehendabiziko lana. Hala ere jakin beharko genuke mangera non egoten den.

Bestalde, garbiketa kontuekin sartu behar orain. Arratzain errekek bazituen lehen lau gobaratoki. Orain, berriz, Eguzkitzakoa ez dago, beste bik ez dute ez presarik ezta gobara harririk ere. Ugarte Etxeberrikoa gelditu zen bizirik azkenengo ur kolpetik. Deskuidoan argi indarririk gabe geldituko bagina nora joan beharko genuke? Horrenbeste



arropa aldatu gabe egon behar.

Kalezarren azpian dagoenak estalpea behintzat badauka. Lehen arropak garbitzen baziren, orain kotxeak garbitzeko balioko luke.

# SANTUENEA

Pako Agudo



## Guk badaukagu astotxo bat

**E**uskaldunen artean asto asko daudela esaten da, baina bi hankekoak noski. Lau hankekoei dagokionez ezin berdina esan. Azken urte hauetan asto kopurua asko jeitsi dela esaten dute. Santuenean,



ordea, badira lau hankako astoak. Lehen ere esan genuen zerbait. Asto txikia ere jaio zen, baina ez zuen bizirik segitu.

Azken egunetan hotza egin badu ere, norbaitek igoko zituen San Estebanera joateko eskailerak. Igotzen hastera koan ezkerratarra begiratu ezkerre, nobedade bat ikusiko luke: beste asto txiki bat dago. Aurrekoa

hil egin bazen ere, orain beste bat jaio da. Ez dira inguruetan askotan ikusten honelako astotxoak. Guk behintzat, Santuenean esan dezakegu: asto txiki bat dugu auzoan.

Bestalde, badirudi amaitu dituztela azkeniean, zubiko lanak. Azken asteetan bukarako ikuituak ematen ibili dira, eta zubiko "miradoreak" txukundu dituzte. Zubian zehar dauden irteera hauetan lurra ondo jarri gabe zuten oraindik eta hesiak zeuden jarrita. Azken lanak egin ondoren beste pixka baterako izango ote dugu zubia, ederra eman du eta azken hilabete hauetan.

# URDAIAGA

Eider Jauregi



## Udazkena

**U**dazkenarekin batera, hotz egiten hasi da ibai bazter eta mendi inguruetan. Hori dela eta ehiztari ugari dabil azken bolada honetan zerbait ehizatzeke asmotan, baina



erabiltzen dituzten kartutxo azal eta kaxak mendi bazterrean uzten dituzte. Ez dute mendia lehen zegoen bezain garbi uzten. Nik ez dakit ongi edo gaizki egiten duten, baina

garbi dago ez dutela inolako asmorik gure mendi eder hauek lehen bezain garbi mantentzeko asmorik. Andatza aldera joan eta kartutxoak ikusi behar ote ditugu ba?

Bestalde, pasaden azaroaren

18an izar festa zela eta, jende ugari hurbildu zen bai Urdaiaga bai Andatza aldera ere. Batek baino gehiagok buelta eman eta etxerako bidea hartu zuen, ezinezkoa baitzen izar festa hori ikustea, laino ugari baitzegoen eta egiten zuen hotzarekin ez dakit merezi zuen kanpoan zerura begira egotea. Ikusi zutenek baietz esango dute eta zain egon eta ikusterik izan ez zutenek berriz, ezetz. Ikusi gabe geratu bada norbait ni bezala, lasai, hemendik 33 urtera pasako omen dira berriz. Ea bada orduan eguraldi hobea egiten digun.



# AGINAGA

## Ospakizunez ospakizun

**J**oan den igandean, hilak 15, ospakizun berezi bat izan zen Aginaga alde honetan. Gure auzoko "xarrak" omendu zituzten. Ez du meritu gutxi ez, horiek iritsi diren tokiraino iristeak! Urtero egiten den omenaldi txiki honetan 80 urte betetakoak izaten dira protagonista.



Eguerdiko hamabietan meza ospakizuna izan zuten Aginagako parrokan eta honen ondoren bazkari eder bat egin zuten Arrate egoitzan. Aurten omendutakoak lau emakume izan dira: Maria Luisa San Sebastian, Julita Lizaso, Maria Mujika eta Silvestra.

Duela bospasei urte hasi ziren auzoan bertan ospakizun honekin, Arrate elkarte sortu zenean hain zuzen. Ordura arte Usurbilen jasotzen omen zuten omenaldia bertako elkartekoekin batera.

Baina ez dira hemen bukatzen ospakizun guztiak. Aurreko igandean, hilak 22, Santa Zezili

Izaro Aizpurua



eguna izan zen. Musikarien zaindaria dela aprobetxatuz, Aginagako koruan ibiltzen diren guztiak, baita elizako organuaz arduratzen direnak ere, afari bat egin zuten Aginaga sagardotegian. Ez dakit ba parranda haundiegia egin eta ez ote ziren ahotsik gabe gelditu igandeko meza nagusirako.

Bestalde, kexa txiki bat ere iritsi zait auzokideen aldetik. Udaletxeko garbiketa zerbitzuak ez omen dira gureganaino iristen. Horrela, haizeak astintzen ez dituen txokoak zikinkeriaz beteta daude, batez ere autobus geltokietako txabolak.

# ZUBIETA

## Herri eskola

**N**oiz edo noiz joaten gara herritar gehienok herri-eskolara, normalean bileraren baten aitzakian. Orain dela gutxi herriko batzarra izan genuen bertan, eta aste honetan Jon Tapiaren senitartekoekin elkartu gara eskolako gela batean. Horrelakoetan inguratzeko gara.

Txikia da eskola, baina goxoa. Lan ederra egiten ari zarete, Mila eta Maixa andereñoak: lan isila (nahita ere, ezin burrunba handirik atera) eskuartean dituzuen zortzi haurtxorekin, baina bai lan garrantzitsua!

Aste honetan, zuen bitartez, Herri-Batzarreko kide bat

Eskolen Organo Goreneko partaide izendatuko dute. Ilusio handia da Batzarreko kideontzat erakunde horretan parte hartzea, beti pentsatu izan baitugu eskola mantentzea denon eginkizuna eta erantzukizuna dela.

Gutxi akordatzen gara zuekin, akaso ez dizuegu behar bezalako arretarik ere eskaintzen, baina, ez pentsa, estimazio

Xabier Arregi



handia dizuegu. Herriaren ize-nean, esker ona erakutsi nahi dizuet herri-eskolan zabilatzaten andereño, haur, guraso eta laguntzaile guztioi. Eutsi horrela, zuen premia badugu eta.

## Udala kexu da Aldundiaren errepide planekin

**E**uskal Herriko Plan Sektoriala eta bigarrenko Euskal Herriko errepideen Plan Orokorra pasa den urrian aurkeztu zituen Foru Aldundiko Garraio eta Errepide departamenduak. Bertan, datozen urteetan Euskal Herrian eta Gipuzkoan egingo diren errepide lanen berri eman zuten. Usurbilgo udalak, 1998ko azaroaren 5ean egindako Hirigintza eta Obrak batzordean bi planei alegazio batzuk egin zizkien.

Plan honetan Lasarte eta Zarautz arteko errepidean egokitasun lanak egingo direla aipatzen da. Lan horien artean, berriz, ez da Usurbil eta Lasarte arteko tartea azpimarratzen. Tarte hau Lasartetik Zarautza bidean zati arriskuetsuenetako bat da udalaren ustez. Horregatik, tarte honetan egokitasun lan bereziak egitea eskatzen diote Aldundiari.

Bestetik, udala Etxealdia auzora sarrera berri bat egiten ari da eta auzo honetatik N-



634 errepidera irteera berri bat egitea aurreikusi zen bere garaian. Plan sektorialera begiratu ezker, irteera berri hau ez da inondik inora ikusten. Irteera plan horretan sartzea eta horren finantziaketa aurreikustea beharrezkotzat jotzen du udalak.

N-634 errepidearekin jarraituz, errepide honek Usurbil zeharkatzen duenean trafikoko intentsitate handia izaten duela aipatu izan da agiritan. Hala ere, irteera emateko garaian ez da inolako neuririk

hartzen. Konponbiderik ezean, arazoak bere horretan jarraituko duela kexatzen da udala.

Azkenik, Troia inguruan errepide nagusia azpitik zeharkatzen duen pasabidearen hobekuntza orain ere ez da aurreikusi. Troiari irtenbide bat eman behar zaiola argi dute udaleko ordezkariak. Errepidea egin zutenetik uholdeen ondorioz kalte ugari jasan ditu auzo honek, eta udalaren ustez pasabide hau da arazo larri horien erantzule nagusienetako bat.

### Udal ondasunen inbentarioa egiteko teknikaria

**O**rain dela hilabete batzuk, udal ondasunen inbentarioa egitea erabaki zuen udalak. Asko izan dira inbentarioa egiteko prest agertu direnak, baina goi mailako teknikari hori aukeratzeko froga guztiak pasa ondoren, tribunalak **Ainhoa Irazustabarrena Barriolari** eman dio lan hori. Bestalde, INEMek udalak aurkeztutako programa onartu ondoren, **Haritz Maiz** eta **Roberto Campook** pintore lanean jarraituko dute datozen bi hilabetetan. Aginagan udalak duen etxea barrutik eta kanpotik pintatzea izango da beren lana.

### Hilerri berria egiteko lanak konkurtsora

**E**roskik Asteasuainean egingo duen hipermerkatuari behin behineko onspena emateak hilerri berria eraikitze bidea ireki du. Usurbilgo udalak konkurtsora atera du lan hau. Aurrekontua 144.301.496 pezetakoa izango da eta lanak amaitzeko 18 hilabeteko epea izango dute. Eskerak aurkezteko epea abenduaren erdi aldera amaituko da. Beraz, urte bukaerarako jakingo dugu hilerri berria zein enpresak egingo duen. Urte askotako itxoinaldia- ren ondoren, datorren urtean has daitezke hilerri berria egiten.

### Azaroaren 24ko plenoko zenbait erabaki

**P**asa den azaroaren 24an ospatu zen plenoan 1999ko zerga eta tasen prezioak behinbetiko onartu ziren. Udal Batza Osoak 1998ko irailaren 29an datorren urterako zerga, tasa eta prezioen ordenantzak aldatzeko hasierako erabakia hartu zuen. Jendaurreko epean ordenantza fiskalen aldaketaren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez, behinbetiko onartzeko erabakia hartu zuten. Bestalde, 1998ko aurrekontuaren 3. kreditu aldaketa egitea erabaki zen batzar berean. Denera 144.452.550 pezeta aldatu dira orain.

# H erorrek esan



## Edorta Agirre

Zubieta

**E**z dakit inkesta horretatik zer egia atera behar den. Nik ez dut lo askorik egiten, horrek ez baitit tiratzen. Siesta ere ez dut egiten. Azken finean jarrera pertsonalak dira



## Ismael Faz

Olarriondo

**N**ik nahi baina lo gutxiago egiten dut. Errebotan lan egitean ez da lasai lo egiten. Batzuetan urduritasunagatik, bestetan gauzez lan egitean egunez ezin delako lo egin... Siesta egiten dut batzuetan.



## Paulino Ibargoien

Galtzaragaina

**H**ala esaten badute egia izango da. Nik behintzat lo gutxi egiten dut, ez nahiz gauean lo egin zalea, orain umearekin gainera... Siesta egiten dut ahal dudanean eta horrek salbatzen nau.



## Carmen Alonso

Kalezar

**E**gia izango da, baina nik ez dut lo askorik egiten. Behin lo piska bat egin, eta normalean kitto. Lo egitea kostatzen zait. Siesta ere ez dut egiten, ez dut ohiturarik.



## Ainara Zapiain

Gaztañazpi

**N**ik uste dut gu baina gehiago lo egiten dutenak badaudela. Jan kontuan lehenengoak gu, baina lotan ez. Nik lo dexente egiten dut, orain ez bainaiz eskolara joaten. Siesta, ordea, ez dut egiten.



## Itziar Alvarez

Galtzaragaina

**N**ik egunean zortzi ordu inguru egiten ditut lo eta nahikoa dut horrekin. Gauean lo egin eta listo, ez daukat siesta egin beharrik. Siesta egitea adibidez, ez zait inoiz okurritu.



## Jexux Mari Zulaika

Kaleberri


**N**ik uste dut lo asko egiten dugula. Ni adibidez, horietakoa naiz, lo asko egiten dute-netakoa, gehiegi beharbada. Lo egitea gustatzen zait eta ahal dudan gehien egiten dut, siesta eta guzti. Lana eta lo, hori egiten dut nik.



## Begoña Pikabea

Eguzkitzaldea

**N**iri asko gustatzen zait lo egitea, eta ahal dudan guztia egiten dut. 23.00ak aldean ohera joan eta goizeko 7.30ak aldera arte egiten dut lo. Gero ez dut siesta beharrik. Gauean lo ondo egiten bada nahikoa da



El acuerdo del siglo XXI  
XXI. mendeko  
AKORDIOA  
L'accord du XXI siècle


[www://jalgi.com/baieuskarari](http://jalgi.com/baieuskarari)



---

*euskarari*

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat · El 26 de diciembre tienes un compromiso · Le 26 décembre tu as un engagement



## Udarregiko ikasleak itsasertza aztertuz

**U**darregi ikastolako ikasle-  
ek badakite zer den itsa-  
sertzak aztertzea. Zazpi urte  
pasa dira Euskal Herrian azter-  
kosta programa martxan jarri  
zutenetik, eta urte guzti horie-  
tan, urtea bukatzerako Usurbil  
eta Orioko itsasertzetan izan  
dira ikasleak. Aurten ere ez  
dute huts egin. Pasa den aza-  
roaren 6an, Orioko itsasertzetik  
datu pila batekin itzuli ziren  
D.B.H.ko lehenengo mailako  
ikasleak.

Usurbilek ez du hondartzarik,  
baina itsasertza baduela esan  
dezakegu. Zergatik? Ori iaibaia  
Orion itsasoratzen bada ere,  
marearen eragina iristen den  
lekuak itsasertzak direlako eta  
Kantauri itsasoko marearen  
eragina Txokoaldeko zubia  
baino gorago iristen da.  
Horrela bada, Udarregi ikasto-  
lako ikasleei azterkosta izene-  
ko programa honetan partze-  
ko aukera dute.

### Hasieran Txokoalde eta Aginagan

Orain dela zazpi urte egin  
zuten lehen azterketa. Orduan  
Txokoalde eta Aginagako erri-  
berako zati batean ibili ziren.  
Bost kilometroko tarte bat  
hartu eta 500 metroko hamar  
zatitan banatu zuten, zati  
bakoitza aztertuz. Azken urtee-  
tan ordea, ez dira leku horre-  
tara joaten. Itsasertzaren zati  
hori murriztu egin zuten eta  
Oriora joaten dira orain.  
Txurruka gainean dagoen  
Oribar bazterra baserritik  
Ortzaikarainoko itsasertza



D.B.H.ko lehenengo mailako ikasleak egin zuten Azterkosta. Bota eta katiuskak jan-  
tzi eta han ibili ziren aurrera eta atzera Orioko itsasertzean

aztertu zuten Udarregiko ikas-  
leek.

Bota haundiak, prismatikoak,  
kuadernoa etab. hartu eta  
ingurugiro sailak bidaltzen  
duen galdeketa betetzen  
saiatu ziren 500 metroko tarte  
bakoitzean. **Joseba Berrio-  
zabal** irakaslearen esanetan  
batez ere begizko azterketa  
egiten dute. "Lehenik eta  
behin kostaldean zer dagoen  
jartzen da: baratzak, parkeak,  
haitzak, errepidea... eta ondo-  
ren kostara heltzen diren  
korronteak eta bakoitzaren  
ezaugarriak zehazten dira.  
Gero itsasertz horretan ikusita-  
ko guztia apuntatzen dugu:  
landareak, animaliak, hegaz-  
tiak, zaborra..."

Galdeketa hauek bete  
ondoren CEIDA erakundera  
bidaltzen dituzte. Hauek,  
Euskal Herri osoko itsasertzetan  
egindako azterketak jaso eta

liburu bat ateratzeaz ardura-  
tzen dira urtero. Hala ere,  
Josebak aztertutakoaren balo-  
razio txiki bat egin digu. "Ori  
ibaiko ura urtez-urte garbiago  
dagoela ikusten da. Hala ere  
izugarria da kostan biltzen den  
zikinkeria eta zaborra.  
Neumatikoak eta kotxeen  
paratxoak aurkitu ditugu,  
eta plastikozko poltsak eta  
boteilak zer esanik ez".

### Botarik gabe itzuli

Ikasleak, aldiz, gustora ibili  
ziren Azterkostaren inkesta egi-  
ten. Honelako irteerak oso  
gutxitan egiten dira eta katius-  
ka eta bota haundiekin ibiltze-  
ko ohiturarik ez dutenez, egun  
polita pasa zuten. Hala ere,  
Noaua!k jakin duenez, lokatze-  
tan botak galdu eta botarik  
gabe etxera itzulitakorik ere  
izan zen. Ea ba datorren urte-  
an azterkosta egiten dutenek  
aurkitzen dituzten bota hauek.



*Sagardotegiko menua  
bazkari eta afarietan;  
bakailaoa eta haragia*

Etxeko sagardoa dastatzeko aukera!

# MAHUKA

*Gizon eta emakumezkoen  
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu*

# Bide onetik dator datorren urterako sagardoa

**U**surbilgo sagardotegiek jo dute sagarra. Urriaren hasieran hasi eta azaroaren eri aldera arte jo eta ke aritu dira lanean. Gure "sagardotxo maitea" edan dezagun norbaitek lan egin beharko du ba! Guk, aurtengo sagardoa nolako datorren jakin asmoz, herriko sagardotegietako jabeekin hitz egin dugu. Aurten beldurra izan da hasiera hasieratik, sagar faltak burukomin ugari sortu omen ditu.

Urriaren hasieran hasi ziren gehienak sagarra ekarri eta jotzen. Aurten sagar urtea zela esaten zuten, baina errealitatea bestelakoa izan omen da. Kezka izan da nagusi sagardogile gehienetan. Illunbe sagardotegiko **Joxe Anjel Aginagak** esan digunez sagardogileak beldurrez zeuden hasiera hasieratik. "Sagarrik ez zegoela, sagar gutxi zegoela... baina azken aldian uste baino gehiago atera da sagarra. Kanpotik zerbait ekarri dugu, beldur hori genuelako, baina azken aldera euri asko egin duenez sagarra hazi eta ugarritu egin da".

Euri urtea sagar urtea izaten dela esaten dute adituek. Iraila ezkerotik euri ugari egin du eta hori sagarrean nabaritu egin da. Iaz 4 milioi sagar biltzea espero zen Gipuzkoan, baino 3 milioitara ez zen iritsi, eguraldi beroagatik usteldu egin baitzen asko.. Aurten 3 milioi baino gehiago bilduko dira.

Santueneako Aialdenea sagardotegiko **Joxean Lazkanoren** esanetan Gipuzkoan ez da sagar gutxi izan. "Kanpoan, Asturiasen, Galizian, sagar gutxi izan da,



eta normalean sagarra kanpotik ekartzen dutenek nonbaitetik atera behar zuten sagarra, eta hemen inguruko baserrietatik sagarra ateratzen hasi dira. Noski, hainbeste sagardo egiteko sagarrrik ez dago Gipuzkoan eta sagardotegi batzuk sagarrrik gabe geditu dira, eta kupel batzuk bete gabe ere gedituko dira".

**Aurten asturiarrak  
sagarrik gabe  
gelditu dira.  
Honela, hementengo  
sagardotegi  
asko esku hutsik  
gelditu da**

Sagardogile gehienek esanetan aurten sagarra urte normal batean bezala izan da, ez orain bi urte bezala, baino aurreko urtean baino gehiago bai. Hala ere, aurten eskaera haundiago izan da kanpoan ez zegoelako sagarrrik. Asturiarrak sagarrrik gabe gelditu ziren eta Galiziako sagar ugari eskuratu dute. Gipuzkoako sagardogileek Asturias eta

Galiziatik sagar asko ekartzen dute, baina aurten gabe gelditu dira. Joxeanen eritziz, "Arazoa hori izan da, ez hemen ez zegoela sagarrrik. Hala ere, Gipuzkoan egingen den sagardo kopuruarentzat ez dago sagarrrik".

Usurbilgo sagardotegi guztiek erabili dute hemengo sagarra, batzuk besteak baino gehiago noski. Sagardotegi txikienek hemengo sagarraz egin dute sagardo guztia. Egiolera sagardotegian 24.000 litro egin dituzte, guztia inguruko sagarrek. "Etxeko sagartietatik, inguruko auzoetatik eta Aia eta Errezil aldetik ekarri dugu sagarra" dio **Txomin Alkorkak**. Aialdenea sagardotegian berriz, 30.000 litro egin dituzte, iaz baino bost mila gehiago eta Goierri, Itziar, Orío, Aia eta Usurbilgo baserrietako sagarra erabili dute.

Araeta sagardotegikoak izan dira iaz baino sagardo gutxiago egin dutenak. Pasa den urtean 80.000 litro inguru egin bazituzten aurten 45.000 inguru sartu dituzte egurrezko kupeletan. **Ramon Kaminok**

adierazi zigunez, "Sagarra askoz gutxiago zegoen, kanpoko ere ez zen kalitate oneko eta erdia egin dugu. Galiziako eta hemengo sagarra erabili dugu. Frantziatik sagarra ekartzeko aukera izan genuen, baina oliotuko zenaren beldurrez ez dugu ekarri".

Illunben 100.000 litro sagardo kupeleratu dituzte. **Joxe Anjel Aginagak** Gipuzkoako sagarra erabili du batipat eta gainontzekoa Frantziatik ekarri du, Normandiatik. Berdin egin du Urdairako **Patxi Azkonobietak** ere. Izan ere, hau Frantziatik ekarri behar zioten sagarraren zain zegoen azken joaldiak ekiteko.

Sagardo gehien egin duena Saizar sagardotegia izan da. Guztira 1.250.000 kilo sagar pasa dira Saizarko tolare berriak eta 1.150.000 litro sagardo inguru kupeleratu dituzte.

**Esteban Lertxundik** agertu digunez, Galizia eta Normandiatik ekarri dute gehienbat sagarra eta tartean bertako sagarra sartu dute, 100 tonelada inguru.

Baina zer nolako sagardoa izango dugu datorren urtean? Hori asmatzea ez da erraza. Gehienak bat datoz gauza batean: sagarra jotzerakoan primerako eguraldia egin du. **Joxe Anjel Aginaga** itxaropentsu zegoen. "Sagardoa egite-rakoan eguraldia primerakoa izan da. Eguraldi freskoa egin du, pasa den urtean baino gradu bat gehiago izango du seguruenik aurten. Aurreko urteko sagardoa baino hobea izango da aurtengoa".


Saizarkoek ere antzera pentsatzen dute. "Sagardoa bere bidetik dator, ona". Hala ere **Esteban Lertxundiren** ustez aurten beste urtetan baino mikitza goa dator. "Gure etxean bai, eta beste batzuetan ere berdina entzun dut. Aurten sagarra mikitza goa izan da,



gozoa ere bazuen baina mikitza nagusitu da. Hala ere, denborarekin etorriko da bere onera".

Zer moduzko sagardoa izango dugun Aialdenean? "Lehengo urtean baina politagoa aterako da-dio Joxeanek-laz hasiera-hasieratik gorputz gutxiko sagardoa zetorrela ikusten nuen, gero ez zen horren txarra atera ez... Aurten beharbada gorputz gehiago izango du sagardoak. Aroma aldetik iaz baino gutxiago du aurtengoa, iazkoa aromati-koagoa zen. Aurten esperantza haundiak ditut".

Denborak esango digu zer



nolako sagardoa izango den Usurbilen datorren urtean. San Sebastianetan hasiko den txotx denboraldian lehenik, eta udarako egun beroetan gero, sagardozaleek emango dute azken epaia. Galizia, Asturias, Normandia... orduan nongo sagarraren zukua edaten ari garen ez dugu nabaritutuko.

Baino bada betiko galdera. Noiz egingo da sagardoa bertako sagarrak? Illunbeko **Joxe Anjel Aginagak** aholku bat eman nahi die baserritarrei. "Batekin eta besteekin sagarraren jarraipena egiten ari gara, eta baserritarrei sagar gazia eta mikitza landatzeko eskatzen diegu. Baserritarrak sagardogilearen aholkuak jarraitu behar ditu. Guk erosten dugu sagarra, eta guk zer eskatzen dugun hura jarri behar dute baserritarrek. Nik garbi daukat: orain baserritarrek sagar gazia eta mikitza landatzen badute sagardogileek erosiko diete sagarra. Sagar gezarekin egingo izaten du, ilunagoa eta motelagoa ateratzen da. Baserri gehienetan horrela ohituta daude, nik errespetatzen ditut, baina sagardoa komertzializatu behar dugunontzat hori ez da gure sagarra".

**Josu Aranberri**


## Irun Hiria saria J.M. Torrealdairentzat

**A**ste borobila izan zen Juan Mari Torrealdai idazle usurbildarrentzat azaroko bigarren astea. Ostegunean Martin Ugalde idazle eta kazetari andoaindarraren bizitzari buruzko biografia aurkeztu zuen; larunbatean, berriz, Irun Hiria saria eman zioten gaztelerazko saiakera atalean "La censura de Franco y el tema vasco" lana osatzeagatik.

"Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena" elkarrizketa liburua aurkeztu zuen lehenik azaroaren 12an Koldo Mitxelena kultur gunean. Bertan, Martin Ugalde idazle eta kazetari andoaindarraren bizitzaren berri ematen du elkarrizketa bidez. Izan ere, elkarrizketa biografikoa da Juan Mari Torrealdaik osatu duen 336 orrialdeko lana. Sei urtez idatziz egindako elkarrizketak dira liburua-

ren mamia eta argazkiekin lagunduta dago.

Liburu hau Jakin aldizkariak egindako plan baten lehen zatia dela adierazi zuen aurkezpenean idazle usurbildarrak. "Lehen zati honetan bere bizitza kronologikoki kontatzen da. Bigarren zatian Ugalderen lan idatziaren bilketa egingo da eta hiruga-



rrenean etorriko da Martinen lanaren eta pentsamenduren azterketa". Lana badu, beraz, Juan Mari Torrealdaik.

### Irun Hiriko lehen saria irabazi du

Larunbatean, azaroaren 14an ere albiste izan zen J.M. Torrealdai. Egun horretan banatu ziren 1998ko Irun Hiria Literatur sariak eta usurbildarrak 1.000.000 pezetako lehen saria eskuratu zuen "La censura de Franco y el tema vasco" lanarekin gaztelerazko saiakera atalean. Idazlan bat literatur lehiaketa batera aurkeztu zuen lehen aldia zen, eta erabiltzen ez duen hizkuntzan idatzia gainera. Hala ere, epaimahaikideek, aurkeztutako 26 lanetatik berea aukeratzeaz gain, Frankismoan zentsuratutako euskal egileen obrei buruzko datuak biltzen dituen lana goratu zuten.

## Kalean da Jose Luis Zumetaren bidai liburu


**E**z da testu liburu normal bat. **Jose Luis Zumeta** margolari usurbildarrak Maroko, Mauritania, Senegal, Mali, Burkina Faso eta Boli Kostatik barrena lanrober batean egindako 11000 kilometrotako bidai luzea kontatzen du pasa den azaroaren 13an aurkeztu zuen "Africa Occidental. Cuaderno de viaje" liburuan. Liburuan oso testu gutxi dago, ohar eta esaldi batzuk besterik ez. Izan ere, bidai horretan egindako marrazkiek osatzen dute 24 orrialdeko liburua. Guztira, akuarela eta koloreetako lapitzen bidez egindako 300 marrazki ditu. Bestalde, artista honen lanak Koldo Mitxelena Kulturunean ikus daitezke abenduaren 12a bitartean.



# GALARRAGA GARRAIOAK

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

Tel.: 943 37 01 46



## TXIRIBOGA TABERNA


pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**NOAUA! DURANGOKO AZOKAN**

Aurten ere euskalzale ugari bilduko da Durangoko azokan. Abenduaren 4an hasi eta 8a bitartean euskal liburu eta diskoak ikusi eta erosteko aukera paregabea izango da. **Noaua! Kultur Elkarteak** erizango du bere lekua azoka honetan. Herrian finkatu ondoren, gure produktuak kanpoan ezagutarazi asmoz, Topaguneak jarriko duen stand-ean egongo dira 1-33 aleen bilduma, auzoetako argazkiak (posterrak) eta **Noaua! aldizkariaren** azken aleak.



**K**e usaina herri osoan zehar zabaldu zen pasa den azaroaren 19an. Eguzkitaldean dagoen Antxeta jatetxeak su hartu zuen arratsaldeko 17.30ak aldera. Sukaldeko padera batek su hartu zuen eta extraktorean gora sabaira zabaldu zen. Jatetxean zituzten bost suitzalgailuez sua itzaltzen saiatu ziren arren, ez zuten ezer lortu. Suitzailuek sua itzaltzea lortu zuten, baina jatetxeak nahiz honen gaineko etxeak jasandako kalteak haundiak izan dira.

**GEZURREZKO BAZKIDE BILKETA DYAREN IZENEAN**

Azken aste hauetan asko izan dira Mitch hurakana jasan dutenei laguntzeko ireki diren kontu korronteak. DYAK gauza bat garbi utzi nahi du. DYA eta Gurutze Gorriaren izenean Ertameriketarako laguntza eske ibili dira batzuk. DYA kanpaina bat egiten ari da, baina ez Gurutze Gorriarekin batera eta ezta ere Ertameriketarako laguntza eske. Horregatik, DYAREN izenean datu pertsonalak edo eta kutzakoak ez eman. Eman nahiko bazenitu deitu Gipuzkoako DYAREN telefonora.



**E**z zuen arrakasta haundirik izan udazkeneko lehen dantzaldiak. Izotz taldearen doinuak entzun eta dantzatzeko aukera paregabea izan arren usurbildarrek ez zuten dantzan denbora asko galdu. Egiten zuen hotza kontuan hartuta, gorputza berotzeko adina kantu eskaini zituen Izotz taldeak pasa den azaroaren 15ean, baina oso jende gutxi ausartu zen frontoian dantzatzera. Horregatik, inoiz baino lehenago amaitu zen dantzaldia, ilunabarreko 21.00ak aldera.



**H**otza? Txistua jotzeko ez behintzat. Esan bestela Usurbilgo txistulari taldeari. Santa Zezili, musikoen eguna, ospatzeko kalera irten ziren herriko txistulariak pasa den azaroaren 22an. Goizeko 11.00etan, motorrak berotzeko, kalejira batekin hasi zuten eguna. Gero, 13.00ak aldera kontzertua eskaini zuten herriko frontoian. Giroa berotzeko hainbat abesti ezagun jo zituzten: Bizkaiko aberatsak, Violetaren martxa, Euskal Herrian euskaraz, Kalera noa ihesi...

**ORBELDI**


**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



**Ekaitz**

**Bideo eta ARGAZKIak**

Usurbil

Tlf 943 36 14 87

oiartzun

**ZENDOIA-ENEAN**

**TABERNA**

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60

## Egunero 100 gaixotik gora transfusioen zain

**U**surbilgo odol emaileen elkarteak urteroko bazkaria egingo du abenduaren 8an Alamandegia jatetxean. Aurretik, Salbatore elizan, 11.30etako mezetan odol emaile izandako guztiak gogoratuko dituzte. Izan ere, aurtengo emanaldiak amaitu ondoren, balorazioak egiteko garaia iritsi da. Aurtengo odol emanaldietan 337 odol poltsa bildu dira Usurbildarren artean. 13 emaile izan dira lehenengo aldiz beren odola eskaini dutenak.

1993. urtetik hona izandako joera zerbait aldatu da. Urte horretatik aurrera pixkanaka-pixkanaka beherantz joan da emanaldi kopurua, baina aurtentzen ez da hori gertatu. Iaz baino 2 odol poltsa gehiago eman dira 1998an. Datu honek itxaropenik sortzen badu ere errealitatea bestelakoa da: orain dela bost urtekoarekin alderatuz, %20

gutxiago izan dira aurtentzen bete diren odol poltsak.

Emaile berriak behar dira elkarteko esanetan. "Gaur egun odol ematen dutenetatik urtero bajak izaten dira adina, gaitza edo beste hainbat arrazoiengatik. Eta bajak altak baino gehiago badira...". Egunero 100 gaixo-


tik gora dira transfusio baten beharra dutenak. Gaixoez ezin dute itxaron, ezinezkoa da odola sortzea, gutako edozeinen bizia odol emanaldi batek erabaki dezake.

Datorren urtean beteko dira 25 urte Usurbilgo ordezkari lanean hasi zenetik eta erreleboa eskatzen dute. "Hasi ginenetik ia pertsona berak gaude odol ekintzak prestatzen. Aldaketak behar dira, jende berria, lan egiteko prest dagoena. Orain gaudenoi gazteek ere parte hartzea gustatuko litzaiguke".

Datorren abenduaren 8an elkarteko odol emaileak urtero egiten duten meza eta bazkaria egin asmoz. Hala ere, Usurbilgo odol emaileen elkarteko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkie odola emanaz eta beste erara laguntzen dien guztiei. "Zuek zarete ekintza honen ardatz nagusia".



## Victorio Luzuriaga kooperatiba bihurtzeko bidean



**U**surbilgo Victorio Luzuriaga Elkarte Anonimoa izatetik Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) barruan dagoen Fagor Ederlaneko kooperatiba izatera pasako da urte bukaeran. Aldaketa hau gauzatzeko, gutxienez langilearen bi herenek kooperatibako bazkide izatea onartu behar zuten. Orain arte langileen %75ak aukera hau onartu du eta hemendik aurrera Fagor Ederlaneko batzarrak izango du azken hitza. Honenbestez, 2002. urterako helburua, fundizio bereziaz automobilgintzarako 39.000 tonelada osagai konplexu salduz, 8.200 milioi pezetako fakturazioa lortzea da. Horretarako 5 urtetan 2.250 milioiko inbertitu eta 15 langile hartu beharko dira.

# P A T R I

## J A T E T X E A

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



# Kima

## MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**



Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 943 36 61 97

## EGIN ZAITEZ NOAUA!ko BAZKIDE!

## USURBILDARRAK KOLDO IZAGIRREREN LIBURUAN

Koldo Izagirre idazleak "Euskararen Historia txikia Donostian 1800-1998" liburua kaleratu berri du Susa argitaletxearen eskutik. Bertan, euskararen historian funtsezkoak diren garai bat eta hiri bat aurkezten ditu: 1800-1998 aldia eta Donostia. Liburu honetan hainbat usurbildar aipatzen dira: **Juan Joxe Alkain "Udarreri"**, **Manuel Olloki**, **Aginagako Joxe M<sup>a</sup> Begiristain Lertxundi**, **Alejandro Tapia eta Joxe Luis Zumeta** besteak beste. Liburu hau Durangoko azokan egongo da salgai.



**A**zaroko hirugarren astean gezurrezko diruak eman du zeresanik. Herriko zenbait komertziotan, 10.000 pezetako faltuekin erosketak eginen saiatu ziren adin txikiko ijitoak. Erosketa txikiak egin eta 10.000 pezetakoa aldatzen zuten, egiazkoa dirua lortuz. Hala ere, herriko dendari batzuk horretaz jabetu eta udaltzaingoa jakinararen gainean jarri zuten. Diru faltuarekin zebiltzaren kotxearen matrikula apuntatu ondoren, Oriotik Zarautza bidean harrapatu zituzten.

## PELOTA TXAPELKETAREN AZKEN PARTIDUAK

Aitzaga Kultur elkarteak antolatzen duen eskuz lau eta erdiko binakako pelota txapelketa azken partiduetara iritsi da. Pasa den azaroaren 21ean jokatu ziren finalurreko partidukoak. Lehenengo neurketan **Oidui Usabiaga eta Haritz Urdanpileta** 22-13 nagusitu ziren **Igor Uribe eta Iker Mujikaren** aurka. Bigarrenetan, berriz, **Koldo Lertxundi eta Inaxio Arruti** izan ziren nagusi, **Mikel Arroyo eta Joxe Mari Lizasori** 22-16 irabazi ondoren. Azken partidukoak abenduaren 6an jokatuko dira.



**Z**umarte musika eskolako ikasleek Santa Zezili Zeguna ospatzeko urteroko kontzertua eskeini zuten pasa den azaroaren 21ean Salbatore parrokian. Musika eskolan irakasten diren instrumentu desberdinen doinuak entzuteko aukera izan zuten bertara gerturatu ziren guztiek. Umeak, zaharagoak, binaka, taldeka... musikariak izan ziren protagonista musikarien egunaren bezperan. Kontzertu honetan etorkizuna badagoela argi delitu zen.



**E**uskararen Kontseiluak martxan jarritako "XXI emendeko akordioa: Bai euskarari" kanpainak Gipuzkoako herri ugari bereganatu ditu. Usurbil ere ez da atzean gelditu. Kanpaina honen alde lan egiteko lan talde bat osatu da herriko talde desberdinen parte hartzearekin: AEK, Zubietako Herri Batzarra, Ikastolako Guraso Elkarteak, E.H.E, Noaua!, Euskal Txokoak, Andatza K.K.E. besteak beste. Momentuz, enpresa nagusietara jo nahi dute euskararekiko atxekimendua lortzeko.



# Urtinea *lorategia*

## Lore eta landareak

San Esteban auzoa

Tel. 943 36 22 55



## Eli Arruti trialzale gaztearekin hizketan

**E**lik 11 urte ditu eta betidanik azaldu du gurpilekiko zaletasuna. Ikastolatik etorri bezain laister, bizikleta hartu eta hor ibiltzen da hara eta hona herriko txoko zailenetan. Triala beti gustokoa izan du, izan ere halako bizikleta txikiarekin hainbeste salto eta akrobazia egin daitezke!

Duela bi urte inguru trialeko bizikleta bat erosi zioten. Beno, jada garrantzitsuena bazuen; bizikleta, orain ondo ibiltzen ikasi behar. Helburu honekin bi ikastaro egin ditu Eli, bat Donostian eta bestea Hondarribian. Ikastaro hauek uda aldean izaten dira. Txapelketak, berriz, udaberri aldean hasten dira. Neguan ezer gutxi dago trialzaleentzat.

Txapelketak Lazkaon, Orion, Santa Barbaran, Landarbason... izaten dira. Txapelketetan lau pista mota daude mailaren arabera; zuria, hasi berrientzat, urdina, zailtasun gehiago duena, gorria, maila altuagokoa eta beltza, profesionalentzat. Ibilbidean zehar, egindako hutsak puntutan neurtzen dira, beraz, gero eta puntu gutxiago lortu, hobe.

Eli, pista txurietan dabil oraindik. Berak argi dauka bere helburua; ondo pasa eta bizikle-



taz gozatzea. Hala ere, benetan gustatuko litzaioke noizbait pista beltz bat egitea.

Kirol honetan oso garrantzitsua da burua hotz mantentzea, lasaitasuna ezinbestekoa da saltoak egoki egin eta oztopoak ondo gaintitzeko. Trial ikastaroetan bizikleta menperatzen irakasten dizute; saltoak nola egin, gurpila altxata ibiltzen... Behin funtsezkoena ikasita, beste guztia norberaren trebetasun eta abileziaren esku dago.

Eliren ohizko entrenamendua txirristako kosketan gora eta behera ibiltzea da, ez da leku txarra entrenatzeko! Ezta burua hausteko ere. Izan ere, kirol hau arriskutsu samarra ere

bada. Elik Orion, urraturen bat edo beste egin zuen. Ibilbidea hondartzako harrietan zegoen eta leku nahiko arriskutsua zen. Halere, sustoa besterik ez zen izan.

Trialean hasi aurretik, Eliren ametsa txirindularitza zen, lasterketetan ibiltzea. Alor honetan Usurbilen gabezi bat antzematen da, ez dago bizikleta zaleentzat inolako aukerarik. Hala ere, lasterketa pare batean parte hartu du, bere kontura.

Lasterketa horietako bat Andoainen izan zen, herriko festetan. Billabonako txirindulari talde batekin harremanetan jarri eta talde honekin atera zen Eli lasterketara. Ibilbidea Andoaingo kaleetan zehar jarritako zirkuito bat zen. Bost buelta eman behar ziren eta Eli bostgarren postuan sartu zen helmugara, baina lau buelta bakarrik eginda. Inor konturatu ezenez, bostgarren postua usurbildar gaztearentzat izan zen.

Bizikleta munduan aurrera jotzeko ezaugarri garrantzitsuenak ditu Eli; gogoa eta bizkortasuna. Galdetu bestela Andoaingo epaileei! Beraz, eutsi goiari eta animo Eli!



**AZAROAK 28 larunbata**

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Texas Las. - Usurbil F.T.** Michelingo futbol zelaian.
- 1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Usurbil F.T.- Zarautz.** Arratsaldeko 15.30etan Harane futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubalo partidua** (M): **Arrasate - Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo partidua** (M): **Loiola - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubalo partidua** (M): **Ormaiztegi - Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo partidua** (N): **Usurbil K.E. - Pulpo.** Oiardo kiroldegian.
- Jubenil mailako **eskubalo partidua** (N): **Zarautz - Usurbil K.E.** Zarautzko kiroldegian.

**AZAROAK 29 igandea**

- Aitzaga elkarteak antolatuta, lau eta erdi barruan, **eskuz binakako txapelketa-ko azken partiduak.** Eguerdiko 11.00etan hasita:

Hirugarren eta laugarrenerako

**Panaiotis-Txilibita Mikel-Joxe Mari**

Finala

**Koldo-Inaxio Haritz-Oidui**

- **Futbol partidua** 2.jubenil mailan (M): **Ostadar - Usurbil F.T.** Harane futbol zelaian.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Hondarrabia - Usurbil F.T.**

**ABENDUAK 5 larunbata**

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Urnieta - Usurbil F.T.** Urnietako kiroldegian.
- **Futbol partidua** 2.jubenil mailan (M): **Usurbil F.T.- Texas Lasarte.** Harane futbol zelaian.
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Usurbil F.T -Oartzun.** Harane futbol zelaian.
- 2. nazionaleko **eskubalo partidua** (M): **Usurbil E.T. - Barakaldo**
- Kadete mailako **eskubalo partidua** (M): **Loiola - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubalo partidua** (M): **Ormaiztegi - Usurbil K.E.**

**ABENDUAK 6 igandea**

- Hondartzako futbol txapelketa Kontxako hondartzan: **Aginaga Sagardotegia-Pizza Queen.**

**ABENDUAK 8 asteartea**

- Hondartzako futbol txapelketa Kontxako hondartzan: **Aginaga Sagardotegia-Txingudi.**

**Emaitzak**

**Futbola**

**Azaroak 14-15**

Usurbil F.T **1** Amaikak bat **2** (1.R.)  
Intxurre **4** Usurbil F.T **2** (ju.m)  
Alde Zaharra **5** Usurbil F.T **1** (n.)  
Usurbil F.T **9** Lasarte Oria **0** (k.m)

**Azaroak 21-22**

Soraluze **2** Usurbil F.T **2** (1.R.)  
Usurbil F.T **2** Danena **2** (ju.m)  
Usurbil F.T **5** Urnieta **0** (n.)  
Usurbil F.T **0** Ostadar **3** (k.m)

**Eskubaloia**

**Azaroak 14-15**

Aloña Mendi **14** Usurbil K.E. **33** (2.N.)  
Usurbil K.E. **17** Hernani **17** (ju.n)  
Usurbil K.E. **15** Leizaran **8** (ka.n)  
Hondarrabia **35** Usurbil K.E. **32** (ju.m)  
Hondarrabia **8** Usurbil K.E. **19** (ka.m)

**Azaroak 21-22**

Usurbil K.E. **26** El Pilar **29** (2.N.)  
Usurbil K.E **18** Beasain **16** (ju.m)  
Goierriko II **5** Usurbil K.E. **22** (ju.n)  
Usurbil K.E **14** Urnietako **18** (ka.m)  
Leizaran **6** Usurbil K.E. **9** (ka.n)

**Hondartzako futbola**

**Azaroak 22**

Aginaga Sag. **3** Bar Esnaola **1**

**Futbol Aretoa**

**Azaroak 14**

Larramendi **5** Antxeta **1** (ju.m)


**Laburdurak**

R.: errejionalak      ka.: kadeteak  
N.: nazionala        n.: neskek  
ju.: jubenila         m.: mutilak



Agurtzane Alkorta Urdampilleta

**"apelliduak abizendu"**



# CHIAPAS S.O.S.

**1** 994ko urtarrilaren batean **ASKI DA!** garraisi egin genuen, eta ordu ezkeroztik mexikar indiarrok ez dugu bururik makurtzen, boteredunak aurrez begiratzaren ditugu, eta orain berek jaisten dute begirada, guk duintasuna baitugu, berek, ordea, ez. Guk guztiontzat izango den Mexiko nahi dugulako, berek berriz, gutxi batzuentzakoak. Guk bakean bizi nahi dugun bitartean, berentzat indigenarik onena lurpean dagoena delako. Mexikar indiarrok erresistitzen dakigu. Boteretik giza sakrifizioak egiten jarraitzen ez dugu utziko. Gure alde dugu justizia, arrazoia eta historia. Irabaziko dugu eta zuek guztiekin **Mexiko berri bat eraikiko dugu**” Ramona Komandantea.

Hitz hauekin dena azalduta gelditzen da, baina hobeto adieraziko dut Chiapas aldean ikusi eta ezagututakoa.

Uda honetan bi hilabetetarako joan nintzen Chiapasera, giza eskubideen begirale Internazional moduan, Zapatisten herri babesa den komunitate zibil batera. Bertan ginen atzeritarron egin-beharrak soldadu mexikarrak azaltzen zirenean berek gu ikusteko moduan gerturatzea zen; atzeritarren presentzia dagoen bitartean soldaduek ez baitute herri zibila erasotzen.

Baina zerk bultzatu ditu indigena mexikarrak armak hartzera, zein da beren helburua, zer eskatzen dute?

506 urtetan indigenak zapalduak izan dira, esklabu edo animalia moduan tratatuak, bortxatuak, beren kultura zapaldua, eskluituak, hustiatuak...

Azken 20 urteetan, berriz, beren egoerak okerrera egin



Millitarren presentzia etengabea eta jasanezina da Chiapaseko estatuan

du, munduan indartzen ari den proiektu neoliberalaren ondorioz. Merkatua gizakien eskubideen gainetik jarri da, mundua multinazionalak kontrolatzen dute, beren interesak defendatzearen estatu bateko ekonomia pikutara bidali dezakete, “3. mundua” deitutako herrietatik lehengaiak ustiatzen eta lapurtzen dituzte multinazionalak, eta ondoren produktu manufakturatutak saldu. Bitartean, lehen munduko estatuak oso protekzionistak dira bere ekonomiekiko. Merkatuaren izenean ez da ez ekologiarik, ez gizakirik, ez kulturarik, ez hizkuntzarik, ez giza eskubiderik errespetatzen.

---

**Azken 20 urteetan, berriz, beren egoerak okerrera egin du, munduan indartzen ari den proiektu neoliberalaren ondorioz**

---

Honek guztiak Mexikon ere eragina izan du, jendearen bitzta kalitatea jaitsi egin da, indigena berriz hondoratu.

Chiapas estatuak Mexikoko estaturik aberatsena da, askotan datuak aspergarri gerta badaitezke ere, hona hemen batzuk:

Chiapas estatuak Mexikoko petrolioaren %21a produzitzen du, gas naturalaren %47a eta energia hidroelektrikoaren produkzioan lehen postuan aurkitzen da, baina hala ere etxebizitzaren %95ak ez du argi-indarririk etxean.

Kafe produkzioaren lehen postua du Mexikon, abereen produkzioan 2. postua, artoa-reen 3. postua, baina bitartean umeen %88a deselikatuta dago. Urtean 15.000 pertsona hiltzen da tuberkulosiak jota.

Begibistakoa denez, genozidio honen aurrean armak hartzera behartuak izan dira, eta 10 urte prestatzen egon ondoren, 1994ko urtarrilaren 1ean (Mexikok Kanada eta Estatu Batuekin sinatutako Merkatu Askerako Tratatu indarrean

jarri zen egunean), armen bitartez Chiapaseko 7 hiri menpean hartu zituzten, horien artean San Cristobal de las Casas (100.000 biztanle inguru).

Mexikar ejerzitoarekin izandako borroka urtarrilaren 13a arte iraun zuten. Ondoren E.Z.L.N. (Ejército Zapatista de Liberación Nacional) eta Gobernuaren artean negoziaketak hasi ziren.

Gaur egun, elkarrizketa horiek etenda daude, EZLN eta Gobernuaren artean lortutako akordioak Gobernuak bete nahi ez dituelako. Akordio horien oinarriak honakoak dira:

- Eskubide politikokoak: Herri indigenak konstituzio mexikarrean errekonozitzea, mexikoko hauteskundeetan parte har-

tze eta beren gobernatzeko ohiturak errespetatzea. (Demokrazia zuzena: erabaki guztiak asanbladan hartzen dira).

- Judikatura eskubideak: indigenen arteko barne gatazkak bere konpontzea eta beren ordezkariak hautatzeko modua errespetatzea.

- Eskubide sozialak: Beren gizarte antolaketa errespetatzea.

- Eskububide ekonomikoak: Beren lan antolaketa eta produktioa garatzeko eskemak eta alternatiobak garatzea.

- Eskubide kulturalak: Beren identitate kulturala garatzea.

Azken finean eskatzen dutena demokrazia, justizia, bakea, kulturari errespetua, emakumeen eskubideak bermatzea,

etxebizitza eskubidea, osasun asistentzia baterako eskubidea, hezkuntza eskubidea eta autonomia dira. Autonomia beren bizi modua garatzeko eta mexikar moduan besteen pareko izatera iristeko, ez Mexikotik bereizteko.

---

## Zapatistek ez dute Mexikoko boterea eskuratu nahi, errespetua nahi dute eta bide batez eskubide guztiak errespetatzea


---

Lehen aipatu bezala, EZLN eta Gobernu (PRIkoa; 60 urte baino gehiago agintean dagoen partidu poliko baten diktadura) akordio horietara iritsi ziren, baina gobernuak ez zituen bete, eta EZLNri egotzi errua. Azken 2-3 urteetan Gobernu guda zikina egiten ari da herri indigenetan paramilitar eta soldadua sarraskiak egiten, indigenen batasuna bereizteko asmoz. Eta bitartean EZLN armak erabili gabe dago.

Chiapasi laguntzeko deia luzatzen dizuet eta laguntzarik onena bertara joatea da.


Bestalde, neoliberalismoak guregan ere badu eraginik; langabezia, prekarietatea, ETTak, pribatizazioak, esplotazioa, enpresari eta partidu politikoen diktadura, desindustrializazioa... ez diogu "3. munduari" begiratu behar horrelako gauzak ikusteko. Nahiz eta hemengo egoera hangoa baino hobea izan errudunak berdinak dira. Badago zertan lan egin.

Niko Bengoetxea



Hona hemen Chiapaseko haur bat. Argazkian irribarrez agertzen bada ere beraien egoera bestelakoa da. Kafearen, abereen eta artoaren produktioan Chiapas Mexikoko lehen postuetan badago ere, bertako umeen %88a deselikatua dago.

# Zer diyo?



Nerea Zinkunegi

- Arte Ederretan lizentziatua
- Udarregi ikastolako plastika irakaslea

## Ikastolako gazteak ere merkataritza euskalduntzen

100 pezetako horia?, 1.000 pezetako laranja?, 11 milioi pezetako berdea?. Kuriositatean geratu zen lehenengoa, moskeatuta bigarrena eta azkena malaletxean ia. Zer demontre ote ziren herriko edozein bazterretan elkarren gainean itsatsirik zeuden txartel fosforito horiek?

Ez nintzen jakinminak zirikatutako bakarra izan, udaltzainei galdezka ibili zirenak ere ba omen dira tartean. Eta hilabetera edo, publizitate enpresa handiek egiten duten modura, erantzuna: "Zenbat da? Eztu preziyoik". Kontxo, kontxo!! Udaletxearen merkataritza euskalduntzeko kanpaina.

Izan ere, beste hainbat gauzen artean usurbildarron eguneroko hizketa gune nagusietako bat dugu merkataritza; okindegian, arrandegian, botikan, harategian, tabernan e.a. Euskararen normalizazio egoera lortu nahi badugu zer hobe eguneroko ekintzetatik hastea baino?

Buzoian jasotako panfleto batek argitu zigun guztia. Hara! Ditxosozko kanpaina horren azken txartela bera zuen aurrekaldean, lau orri, besterik ez. Eta bertan, kanpainaren berri ematen zuen datu mordoxka bat, era txukun, argi eta arin batean aurkeztuz: inkestak, azterketak, emaitzak, portzentaiak.

Duela hilabete edo, kanpaina honen arduraduna etorri zitzaigun ikastolara eta plastika arloko irakasleoi interesgarria eta erakargarria suertatu zitzaigun honako proposamena bota zigun: zergatik ez ditugu ikasleak ere kanpaina honetan partaide izateaz gain propagonista egiten? Horretarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduetako ateetako **Zabalik/Itxita txartelak eta ordutegiak** diseinatzea proposatu zigun.

Proposamena DBH 4. mailako ikasleei egitea iruditu zitzaigun egokiena eta hauek gogo onez erantzun diote erronka honi. Izan ere, adin honetako ikasleak motibatuzeko, zein honelako ekintzetan partaideak sentiarazteko aitzakia ona izan da.

Hasiera batean lotsaz edo beldurrez hartu zuten ikasleek proposamena, "baina nola, guk diseinatu behar al ditugu txartelak?" eta ondoren betiko komentarioak "ez zaizkie gustatuko eta besteren bat egingo dute", edo "nik ez dut honetarako balio". Eta purrusta emozio-natuen artean lanean hasi ginen. Ereduak lortu, hauek aztertu, kalean ikusten ditugunetan arreta jarri e.a. Pixkanaka-pixkanaka ideiak sortzen hasi ziren.

Bozeto mordoska bat pilatu, denak mahai gainean zabaldu eta gustokoenak aukeratu ondoren txukun-txukun landu genituen, inprentara bidaltzeko moduan gera zitezten.

Hiruzpalau klase ordu egin genituen ariketa honekin eta azkenean mahai inguruan bildu eta hortxe genituen geuk sortutako txartelak.

Oso ideia majoak sortu ziren, landuagoa bat bestea baino, erakargarriagoa ordea hango hura, baina politagoa hemengo hau... Nahitaez aukeraketa egin behar genuen, eta botazioz hiru aukeratu genituen.

Hemendik gutxira, guztiok eta batez ere ikasleek, "beren" txartelak ikusiko dituzte herriko komertzio eta tabernetan.

Honelako proposamen baten aurrean, plastikako irakasle bezala oso esperientzia interesgarria izan dela esan nahi nuke. **Ikasleek, kanpaina honetan partaideak eta nolabaiteko protagonistak** sentitzeaz gain, plastika berari nolabaiteko funtzioa ere somatu diote. Izan ere, nork ez du inoiz pentsatu plastika arloak garrantzi handirik ba ote duen gure heziketan? Galdera honek, agian, beste "Zer diyo?" bat mereziko luke.

Pozten naiz bada kanpaina honetan era batera edo bestera parte hartzen ari garen guztiongatik.

Aurrerantzean, badakigu guztioi dagokigula euskaraz bizitzearen ardura, izan ere euskaraz bizitzeak ez baitu preziyoik!



## Bota bertsoa

### “200 pezta”

Sei hilabete t´erdiz  
txerria gizendu,  
karga hartzeko ere  
nahiko pentsu jan du,  
bere pisuagatik  
ez zen nabarmendu,  
hiltzeko gazte zela  
ta ihes egin du,  
txerri hiltzen hasi ta  
zer atarramendu!

Hil-mahaia ikusirik  
hasi da korrika,  
harrapatu ezinik  
atzetik harrika,  
beldurturik egin du  
makina kurrinka,  
harrapatzeko genun  
guztiok irrika,  
ospatzeko geneukan  
sagardo barrika.

Ostapen atera da  
Stop egin gabe,  
txerria egin zaigu  
bidearen jabe,  
Añorgatik pasa da  
ez oso suabe,  
Donostiara doa  
paretikan alde  
Santa Tomasetako  
errifen zain gaude.

Doinua: Bizkaiko txerriarena

Egilea: Bota Puntubako “babyak”

## Erremedioen txokoa



### Gibela garbitzeko

**G**ibela garbitu nahi duenarentzat oso ona da **paretabelar Gedo ormabelarra** (*Parietaria officinalis*). Euskal Herri osoan zabaldua dagoen landarea hartu eta uretan egosi behar da. 20 minutu hozten utzi eta iragazki batetik pasako dugu. Gibela garbitzea bada zuk nahi duzuna, janordu bakoitzean hartu pareta belarraren ura.

## Lehiaketa



Sailkatu itzazu Euskal Herriko bost herrialde hauek euskaraz gehien hitz egiten den herrialdetik gutxien egiten denera:

**Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparraldea (hiru herrialdeak batuta) eta Nafarroa**

Galdera honen asmatzaileen artean liburu sorta bat zozketatuko dugu “Bai euskarari” kanpainaren barruan abenduaren 20an Usurbilen egingo den jaialdian. Guk, 57. alean emango ditugu ezagutzera irabazle-en izenak.

Aurreko aleko lehiaketan argazkian ikusten zen baserria zein zen galdetzen genuen. Aginagan zegoen Arrillaga-txiki baserria da erantzuna. Aginagarrak nahiko ezaguna duzue, behintzat, zuetako asko izan baitira erantzuna bidali dutenak. Irabazlea, nola ez, aginagarra. **Mari Jose Muruak** izango du Egioletan afaltzeko aukera.

## AZAROAK 27 ostirala

- **Senideaken manifestazioa** arratsaldeko 20.00etan. Frontoitik irteera.

## AZAROAK 28 larunbata

- Gabonetarako Euskal Presoak Euskal Herrira manifestaldi nazionalaren ondoren, **"Euskal preso bat ere ez euskal prentsarik gabe"** harpidetza afaria egingo da Aitzaga elkartearen. Afaria autobusak iristen direnean egingo da, 21.30ak aldera.

Menua:

- Urdaiazpikoa eta patea.
- Arrain zopa
- Oilasko errea
- Tarta
- Kafea, kopa eta purua

Txartelak salgai: Aitzaga, Zendoia eta Txiribogan. Salneurria: 2000 pzta. Ikasle eta langabetuek 100 pzta.

- Udalak tabernariaren laguntzarekin antolatzen duen dantzaldietako bat. Gaueko 22.30etatik aurrea **Laiotz taldearekin dantzaldia** herriko frontoian.

## AZAROAK 30 astelehena

- **Euskal Herria Askatu! konzentrazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan

## ABENDUAK 7 astelehena

- **Euskal Herria Askatu! konzentrazioa Bordatxo aurreko** errotondan arratsaldeko 20.00etan

## ABENDUAK 8 asteartea

- Usurbilgo odol emaileen elkar-teak urteroko bazkaria egingo du Zubietako Alamandegia jate-txean. Aurretik, 11.30etako mezetan odol emaile izandako guztiak gogoratuko dira.

## ABENDUAK 12 larunbata

- **Organo kontzertua** Salbatore elizan. Arratsaldeko 18.30etatik hasita **Mario Duella organojole italiarrak** XIX. mendeko bigarren zatiko konpositoreen erromantiko estiloko obrak joko ditu: Edouard Batiste, Marco Enrico Bossi, Theodore Salome, Theodore Dubois eta Alexandre Guilmant.

## LANPOSTUAK

- ✓ **Donostiako euskararen udal patronatua laguntzaile bat** behar da. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 3a. Informazio gehiago G.A.O.ko 215. zenbakian.

- ✓ **Arrasateko udalak** funtzionarioen taldean hutsik dagoen lanpostua betetzeko **arkitekto bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 3a. Informazio gehiago G.A.O.ko 215. zenbakian.

- ✓ **Ordiziako udalak bi peoi lanpostu betetzeko deialdia** egin du. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 4a. Informazio gehiago G.A.O.ko 215. zenbakian.

- ✓ **Aiako udalak aparejadore/Arkitekto tekniko bat** behar du. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 4a. Informazio gehiago G.A.O.ko 216. zenbakian.

- ✓ **Hondarribiako udalak ofizial teknikari bat** behar du lehiaketa oposizio irekiaren bidez Ofizial elektrikari lanpostua betetzeko pertsona aukeratuko du. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 14a. Informazio gehiago G.A.O.ko 222. zenbakian.

## EUSKAL PRESO BAT ERE EZ EUSKAL PRENTSARIK GABE

Azaroaren 28an Harpidetza afaria egingo da Aitzaga Elkartearen gaueko 21.30ak aldera.

Menua:

- Urdaiazpikoa eta patea
- Arrain zopa
- Oilasko errea
- Tarta
- Kafea, kopa eta purua

Txartelak Aitzaga, Zendoia eta Txiriboga tabernetan

## LOTERIA SALGAI ANTXYETA JATETXEAN

Antxeta jatetxea sutearen ondorioz itxita badago ere, gabonetako loteria dute salgai. Sutea izan aurretik eskatuta zutenez, loteria saldu egin nahi dute.

Erosi nahi duenarentzat abenduaren 1ean eta 2an egongo dira salgai Antxetan bertan 11.00etatik 13.00era.

## OPARITU JOSTAILUREN BAT LOJAKO HAURRENTZAT

Mikel Elexpek jostailu zaharrrak, puzzleak, jolasak, baloiak, lapitzak, kuadernoak... eskatzen dizkie usurbildarrei gabonetan, abenduaren 25ean bera dagoen Ekuadorreko Loja albergeko 85 umeei banatzeko.

Noaua! Kultur Elkartearen egoitzan utzi ditzazkezu astegunetan 16.00etatik 18.00etara.

## BAZKIDIE TXARTETEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Noaua!!  
HAMAROSTEKARIA

Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoa: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

# 422

bazkide ditu Noauak.

Zu ere egin zaitez

bazkide

# ELDUAIEN


*Orain, inoiz baino errazago ikas dezakezu  
ingelese eta alemaniera!!*



Buru-belarri gabiltza  
“first”a prestatzen,  
2000. urtean  
Cambrige-eko  
azterketa garrantzitsu  
hau nota onarekin  
gainditu nahi baitugu!



THE ARCH OF EUROPE  
GOLD STAR AWARD  
FOR QUALITY



LIDER DEL  
BUEN SERVICIO  
1996



**Gaur egun  
gizarteak eskatzen  
duen maila lortzeko  
ezinbestekoa da  
txikitatik ikasten  
hastea.**



*E-mail: [elduaien.infomail.es](mailto:elduaien.infomail.es)*

*Tel.: 943 37 14 02*

*Zubiaurrenea 6, behea*

*Usurbil*

# Usurbilgo OFIZIOAK

zure eskura dituzu

## Aroztegiak

### BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluminio-egurrezko leihoak

Izpira etxea

Aginaga

☎ 943 37 15 71 - Faxa 36 01 59

### GONSABI S.L.

Ugarte, 9

Kalezar

☎ 943 37 10 61

### IBARGOEN, JOSE RAMON

Neurriko altzariak

Errotaberri kalea, 3 - Osinalde

☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

### IKUTZA, JOSE MARI

Ugarte, 4

Kalezar

☎ eta faxa 943 37 12 21

### OLASAGASTI, KETXU

Gurutze etxea

Kaleberri

☎ 943 36 12 13

## Iturgintza

### LATAILLADE, IÑAKI

Ariztitxo kalea, 8

Atxegalde

☎ 943 36 33 48 - 36 26 35

### ORBEGOZO, JAVIER

Iturgintza, gasa eta berogailuak

Bizkarre kalea, 1 - 1. esk.

Kaleberri

☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

### OSTAPE

Ostape etxea

Kalezar

☎ 943 36 16 95

### PORTULARRUME, XEBERO

Kale Nagusia, 10

Kaleberri

☎ 943 36 46 37

## Elektrizitatea

### IZAGIRRE, MIKEL

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

☎ 943 36 50 95

### ARGILAN

Instalakuntza elektrikoak

Kontzeju zaharra, 13

Kaleberri

☎ 943 37 02 74

## Igeltseritza

### ARANZAZISTROKI, ANDRES

Igeltseritza eta pintura

Aldapatxo etxea

Kalezar

☎ 943 36 24 71 - 36 05 50

### ERRAZKIN C.B.

Kale nagusia, 1

Kaleberri

☎ 943 37 26 79

Santuenea, 8

Kontzeju zaharra kalea, 1

Kaleberri

☎ 943 36 51 25

## Eskaiola

### NORIEGA, EUGENIO

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

☎ 943 36 56 65

### ELORZA, JOSE ANTONIO

Galtzaragaña 2 - 2.B

☎ 943 37 34 70